ZAZPI 2027 - 2028. Arauak

1 Ibilaldi-zikloaren xedea

Zazpi mendi ibilaldiko zikloa da, Euskal Herriko lurralde bakoitzeko bana. Euskal Herriko Mendizaleen Biltzarrak, Euskal Mendizale Federazioak eta Nafarroako Mendi eta Eskalada Kirolen Federazioak bultzatzen dute, Euskal Herriko hainbat elkarte eta erakundeen laguntzarekin. Lehen edizioa 2027an eta 2028an egingo da.

Zikloaren helburua da mendian maiz ibiltzea, jarraitutasuna, ahalegina eta laguntasuna sustatzea, baita zazpi lurraldeetako mendizaleen arteko topaketak bultzatzea ere: Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Nafarroa, Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa.

ZAZPIk Euskal Herria bertako mendien eta paisaiek gordetzen dituzten istorioen bidez ezagutzea proposatzen du. Ibilaldi bakoitzak kirol-jarduera eta zeharkatutako lurraldearen geografia nahiz ondare historiko, kultural eta naturalaren ezagutza uztartzen ditu, arreta berezia jarriz bertan bizi izan diren eta lurraldea eraldatu duten pertsona eta komunitateengan.

Ibilbideek Ezkabako ihesaren eta Comète Sarearen memoria ezagutzeko aukera ematen dute, baita Meatzaldeko eta Arritzagako meatze-inguruetako lana eta bizimodua, Valderejoko landa-ondarea, Ilarritako hilobi-monumentuak eta Xiberoako antzinako bideak, kantuak eta ahozko tradizioa ezagutzeko ere. Horrela, zikloak herria ezagutzeko eta ulertzeko hainbat modu biltzen ditu, ingurunearekiko errespetua eta ondarearen kontserbazioa eta transmisioa sustatuz.

Proposamenak ez du lehiaketa-izaerarik. Finalista aitortza jasoko dute ezarritako epean zazpi ibilbideak osatzen dituztenek, betiere arau hauetan jasotako parte hartzeko eta ibilbideak baliozkotzeko baldintzak betetzen badituzte.

Proiektuaren aurkezpena, zazpi ibilaldien deskribapena eta haien testuinguru historiko, kultural eta naturala **«ZAZPI 2027-2028» informazio-dosierrean**

jasotzen dira. Dosierra PDF formatuan dago eskuragarri proiektuaren webgunean: www.emf.eus/zazpi. Dokumentu horrek arau hauetako informazioa eta erakunde antolatzaile bakoitzak bere ibilaldiaren deialdian argitaratzen duena osatzen ditu.

2 Iraupena eta ibilbideak

Lehen edizioa 2027an eta 2028an egingo da: 2027an hiru ibilaldi aurreikusi dira, eta 2028an beste lau. Zikloa osatzeko, edizio honetan proposatutako zazpi ibilbideak egin beharko dira, ibilaldien data ofizialetan.

Erreferentziako ibilbideak ZAZPIrako EMFren Wikiloc profilean argitaratutakoak izango dira: https://www.wikiloc.com/wikiloc/user.do?id=14034715

Jarduera bakoitzak fitxa bat izango du, eta bertan zehaztuko dira ibilbidea, distantzia, desnibela, data, ordutegiak eta baldintza bereziak. Ibilbideari edo hura baliozkotzeari eragiten dioten aldaketak parte-hartzaileei jakinarazi beharko zaizkie.

3 Parte-hartzaileak

Zikloa mendizale federatu gazte eta helduei zuzenduta dago. Parte-hartzaileek indarrean dagoen federazio-lizentzia eta ibilaldi bakoitzeko jarduera nahiz hura egingo den lurraldea estaltzen dituen asegurua izan beharko dituzte.

Parte-hartzaile bakoitzak bere prestakuntza eta esperientzia baloratu beharko ditu, distantzia, desnibela eta ibilbidearen ezaugarriak kontuan hartuta. Adingabeen parte-hartzeak jarduera bakoitzaren erakunde antolatzaileak adinari, baimenari eta lagunduta joateari buruz ezarritako baldintzak bete beharko ditu.

4 Izen-ematea eta aldez aurreko informazioan

Ibilaldi bakoitzerako ezarritako prozeduraren arabera eman beharko da izena. Ibilaldia egin aurretik, elkarte edo erakunde antolatzaileak parte hartzeko beharrezko informazioa argitaratuko du, honako hauek zehaztuta:

- Irteerako eta helmugako data, lekua eta ordutegiak.
- Ibilbidea, distantzia, desnibela eta erreferentziako tracka.
- Izena emateko baldintzak, prezioak, parte-hartzaileen gehieneko kopurua eta epeak.
- Gutxieneko eta gehieneko denborak, itxiera-ordutegiak eta kontrol-puntuak.
- Baliozkotze-sistema, anoa-puntuak eta, hala badagokio, nahitaezko materiala.
- Segurtasun-jarraibideak eta jardueran zehar gerta daitezkeen gorabeheretarako harremanetarako datuak.

Ibilaldi batean izena emateak ez du ordezten zikloko gainerako jardueretan egin beharreko izen-ematea.

5 Ibilaldiak egiteko arauak

Parte-hartzaileek osorik egin beharko dute ZAZPIrako ezarritako ibilbidea, eta antolakuntzaren jarraibideak bete. Lasterbideak hartuz gero, zatiren bat egin gabe utziz gero edo baimendutakoaz bestelako ibilbide bat eginez gero, ibilaldia ez da baliozkotuko.

Antolakuntzak segurtasun-arrazoiengatik edo justifikatutako bestelako inguruabarrengatik ibilbidea aldatzen badu, baimendutako ibilbideak hasieran aurreikusitakoa ordeztuko du baliozkotzeari dagokionez.

La Fuga Mendi Martxan, ZAZPIrako kontuan hartuko den ibilbidea lehen etapa izango da, San Kristobal gotorlekutik Saigotseraino doana; aurreikusitako distantzia 28,34 km-koa da, eta desnibel positiboa, 830 m-koa. Zati hori osatzea nahikoa izango da zikloko ibilaldia baliozkotzeko. Urepeleraino jarraitzea aukerakoa izango da, eta erakunde antolatzailearen baldintzen arabera egingo da. Bi kasuetan, aplikazioan grabatutako ibilbidea egiaztatuz egingo da

baliozkotzea; grabazioak frogatu beharko du ZAZPIko zatia osorik egin dela, Saigotseraino.

6 Denborak eta kontrolak

Ibilaldi bakoitzak gutxieneko eta gehieneko denborak izango ditu, jarduerarako ezarritako abiadura- eta desnibel-irizpideen arabera zehaztuta. Denbora horiek, igarotze-ordutegiak eta kontrolen itxiera-ordutegiak ibilaldia egin aurretik argitaratuko dira.

Ibilaldiak ziklorako baliozkotzeko, aplikazio batean grabatutako ibilbidea egiaztatuko da, 7. atalean ezarritakoaren arabera. Horrez gain, parte-hartzaileek ibilaldi bakoitzaren erakunde antolatzaileak ezarritako igarotze-kontrolak eta segurtasun-jarraibideak bete beharko dituzte.

Ezarritako denborak betetzen ez badira edo nahitaezko kontrolen batetik igarotzen ez bada, ibilaldia ez da baliozkotuko, salbu eta antolakuntzak egiaztatzen badu gorabehera parte-hartzaileari egotzi ezin zaion arrazoi batengatik gertatu dela.

7 Trackaren grabazioa eta baliozkotzea

Parte-hartzaile bakoitzak ibilbidea grabatu beharko du Wikiloc, Strava edo egindako ibilbidea erregistratzeko eta kontsultatzeko aukera ematen duen antzeko beste aplikazio batean. Grabazioak ZAZPIk proposatutako ibilbide ofizial osoa jaso beharko du, ziklorako kontuan hartuko den zatiaren hasieratik amaieraraino

Ibilaldia amaitzean, aplikazioan grabatutako ibilbidea erakutsi beharko du helmugan horretarako prestatutako gunean. Antolakuntzak ibilbide ofizialarekin bat datorrela egiaztatuko du, eta, osorik egin dela baieztatu ondoren, jarduera ZAZPI ziklorako baliozkotuko du.

Trackak parte-hartzaileak benetan egindako jarduerari dagokiona izan beharko du. Ez dira egiaztagiri gisa onartuko deskargatutako trackak, beste pertsona batzuen erregistroak edo ibilbidea egin izana itxuratzeko manipulatutako fitxategiak.

Arazo teknikoak helmugan jakinarazi beharko zaizkio antolakuntzari. Antolakuntzak kontrolak eta eskura dituen frogak egiaztatuko ditu baliozkotzeari buruzko erabakia hartu aurretik; arazo tekniko bat izateak ez du esan nahi ibilaldia automatikoki baliozkotuko denik.

Elkarte edo erakunde antolatzaileek ibilbide bakoitza behar bezala osatu duten pertsonen zerrenda helaraziko diote EMFri, ibilaldi-zikloaren jarraipena egiteko eta amaierako aitortza emateko.

8 Antolakuntza eta segurtasuna

Ibilaldietan ingurua ezagutzen duten pertsonak izango dira, jarduerak aurrera eramaten laguntzeko. Halaber, jarduera bakoitzaren informazioan iragarritako anoa-zerbitzuak eskainiko dira.

Parte-hartzaileek lurrari eta eguraldi-baldintzei egokitutako ekipamendua eraman beharko dute, baita aldez aurretik jakinarazitako nahitaezko materiala ere. Ibilbide bakoitzerako beharrezko ura eta janaria prestatzean, aurreikusitako anoa-puntuak kontuan hartu beharko dira.

Jardueran zehar nahitaezkoa izango da antolakuntzaren jarraibideak betetzea, bereziki segurtasunari, kontrolei eta ibilbidearen itxierari dagozkienak. Ibilaldia bertan behera uzten duenak antolakuntzari jakinarazi beharko dio, beharrezkoak ez diren bilaketak saihesteko.

Antolakuntzak ibilaldi bat aldatu, atzeratu, eten edo bertan behera utzi ahal izango du, eguraldiak, lurraren egoerak edo bestelako inguruabarrek segurtasuna arriskuan jartzen badute. EMFk jakinaraziko du erabaki horrek zer eragin duen egutegian eta ibilaldi-zikloa osatzeko aukeran.

9 Asegurua eta istripuen aurrean nola jokatu

Parte-hartzaileek beren federazio-aseguruaren estaldurak, bazterketak eta laguntza jasotzeko prozedurak ezagutu beharko dituzte, eta jarduera bakoitzerako egokiak direla egiaztatu.

Federazio-lizentzia eta jarduera nahiz hura egingo den lurraldea estaltzen dituen asegurua izan beharko dira. **Frantziako Estatuan egingo diren ibilaldietan, nahitaezkoa izango da Pirinioetako estaldura edo ibilbide horiek barne hartzen dituen estaldura zabalagoa izatea.**

Istripu edo larrialdiren bat gertatuz gero, larrialdi-zerbitzuei eta antolakuntzari jakinaraziko zaie, eta jasotako jarraibideak beteko dira. Pertsona bakoitzak bere aukeren eta gaitasunen arabera emango du laguntza, arrisku berriak sortzea saihestuz.

10 Ingurunearekiko errespetua eta elkarbizitza

Parte-hartzaileek zeharkatutako lekuetako natura-ingurunea, ondare historiko eta kulturala, jabetzak eta abeltzaintza-jarduerak errespetatu beharko dituzte. Baimendutako bideak erabili beharko dituzte, basa-faunari eta aziendari eragozpenik sortu gabe, eta sortzen dituzten hondakinak berekin eraman.

Gainerako parte-hartzaileekiko, antolakuntzako langileekiko eta bertako herritarrekiko errespetuzko jarrera izan beharko dute, gure mendizaletasunaren berezko laguntasun-balioekin bat etorriz.

11 Finalisten aitortza

EMFk finalista aitortza emango die 2027–2028ko edizioan ZAZPIko zazpi ibilbideak osatu eta egin izana egiaztatzen duten mendizale federatuei, betiere arau hauek eta ibilaldi bakoitzaren baldintza bereziak betetzen badituzte.

Finalista izaera lortzeko, zazpi jarduerak baliozkotuta izan beharko dira. Ibilbide bat errepikatzeak ez du ordeztuko egiteke dagoen beste bat.

Finalisten lorpena federazioaren urtekariko memorian jasoko da. Halaber, parte-hartzearen erregistroak egiaztatu ondoren, **2028ko Mendizaletasunaren Galan garaikur berezi bat eta intsignia bat jasoko dituzte**, egindako bidearen aitortza gisa.

12 Arau-hausteak eta gorabeherak

Arau hauek, aplikatzekoa den EMFren araudia edo erakunde antolatzailearen baldintzak ez betetzeak deskalifikazioa eta jarduerak ziklorako balioa galtzea ekar ditzake.

Bereziki, ibilbidea osorik ez egiteak, nahitaezko kontrolak edo denborak ez betetzeak eta erregistro faltsuak aurkezteak ibilaldia baliozkotzea eragotziko dute. Segurtasuna arriskuan jartzen duten edo ingurunea kaltetzen duten jokabideak antolakuntzari eta EMFri jakinaraziko zaizkie.

Ibilaldi bateko gorabeherak, lehenik, dagokion erakunde antolatzaileari jakinaraziko zaizkio. Jarduerak zenbatzeari edo finalista aitortzari eragiten diotenak EMFri helaraziko zaizkio, eskura dauden egiaztagiriekin batera.

13 Arauak onartzea

ZAZPI ekimenean parte hartzeak berekin dakar arau hauek, aplikatzekoa den EMFren araudia eta ibilaldi bakoitzerako argitaratutako baldintza bereziak onartzea.

EMFk, erakunde antolatzaileekin koordinatuta, dokumentu honetan berariaz jasota ez dauden ibilaldi-zikloari buruzko auziak ebatziko ditu, eta parte-hartzaileei eragiten dieten erabakiak jakinaraziko ditu.

Eranskina. Aurreikusitako egutegia eta ibilbidea

Distantziak eta desnibelak erreferentziako ibilbideei dagozkie. Ibilaldi bakoitzaren behin betiko informazioa hura egin aurretik argitaratuko da.

Urtea	Lurraldea	Ibilaldia	Aurreikusitako data	Distantzia	Desnibel positiboa
2027	Nafarroa	La Fuga Mendi Martxa – Ezkabatik Saigotsera	Maiatzak 15	28,34km	830m
2027	Bizkaia	Meatzaldea – Burdinezko Kalifornia C	Ekainak 13	24,84km	974m
2027	Zuberoa	Zalagaine-Bosmendieta Basabürüa	Irailak 25	21,91km	1.275m
2028	Lapurdi	Comète Sarea – Ihesaldi handia	Maiatza*	24,18km	1.332m
2028	Nafarroa Beherea	Ilarritako harrespilak	Ekaina*	21,2km	1.355m
2028	Araba	Valderejoko Itzulia –Mila urteko harana	Urria*	23,14km	762m
2028	Gipuzkoa	Arritzaga	Urria*	21,09km	1.323m